2026-05-15 OSTIRALA
1.750. ZENBAKIA

LASARTE-ORIAKO ALDIZKARIA
TXINTXARRI.EUS / TOKIKOM.EUS

txintxarri

KULTURA

**Herriko lau musika talde, eta beste hamalau, ariko dira sanpedroetan/ 4**

# Debekuei eta oztopoei hozka eginda urratutako ibilbidea

Aurten 25 urte bete dira herriko festa alternatiboak, Sorgin Jaiak, egiten hasi zirenetik. Mende laurden honetan egindakoa gogoratu dute, historia eta ospakizuna uztartuta / 2-3



TXINTXARRI

GIZARTEA

**Erromeria urte onenen pare, lasarteoriatar ugari igo dira Azkorteko baselizara / 8**



TXINTXARRI

KIROLA

## Euskadiko txapelketetan lan bikaina egin dute herriko atletek

Urrezko domina bana kolkoratu dute Eider Redondok eta Oinatz Almagrok; brontzezkoa irabazi du Hodei Garciak / 10

GIZARTEA

**Udaberria gogotik eta auzolanean ospatu dute Iñigo de Loiola kaleko zein inguruko bizilagunek / 6**

GIZARTEA

**Lasarte-Oriako aniztasuna eta kulturak eskutik eskura zabaldu dituzte Milakultura jaian / 7**



GIZARTEA

# Herritik eta herriarentzat egindako mende laurdeneko sorginkeria



Okendo plazan elkartu eta Free Tour ibilbide gidatuari ekin zioten sorginek. TXINTXARRI

Lasarte-Oriako festa alternatiboek, Sorgin Jaiek, 25 urte bete dituzte aurten eta ekain amaierako akelarreari ekin aurretik egindakoa errepasatu eta ezagutzeko ibilbidea egin dute, turistaz jantzita

**Iñigo Gonzalez Sarobe**

Tantaka-tantaka iritsi ziren Okendo plazara turista jantzitako sorginak Sorgin Jaien I. Free Tourrean parte hartzeko: bainujantziak, loredun alkandorak, Erresuma Batuan horren ohikoak diren galtzerdi eta sandaliak... Gure herrira oporretara etorri zirela ematen zuen, honengatik ez balitz: blusak zeramatzaten gerrietan eta zapiak lepoetan. Herritik eta herriarentzat mende laurdenez egindako lana errepasatzeko ibilbide gidatua gauzatu zuten.

Esan bezala, Okendotik abiatu ziren. Bertan zuten gida zain, Erik Arzallus, aterkia zabalik eta bozgorailua ahoan, azalpenak emateko hasteko. Egingo zuten ibilbidea azaldu zien: enparantza horretatik, Geltoki kalera, Sorgin Jaiek euren ibilbidea hasi aurretik urtero jartzen zuten txosna gunera; bertatik, Sagardotegi kalera, garai horretan zegoen kioskora; hirugarrenik, Kale Nagusira, zenbait urtez txosna gune bilakatu zen Kamioi Rock ekimenaren tokira; gero, Hipodromo etorbidera,sorginen aurreneko toki egonkor bilakatu zenera; ostean, Loidibarren pilotaleku ingurura, Okendora etorri aurreko festen bilgunera; eta, azkenik, Okendora buelta, akelarrearen egungo topalekura.

Tokiak soilik ez, ekimenak errepasatu zituzten: kontzertuak, olinpiadak, txupinazoa, kalejira musikatua, Sorgin Dantza... Bazkari herrikoia eta azken festa ere egin zituzten topaketa horretan, Arranopola txarangarekin.

**Data historiko batzuk**

**1982**

ERDIGUNEKO TXOSNAK, LEHENENGOZ

Herri mugimendu horretako kide Mailu Arrutik zehaztu zuen urte horretan hasi zirela.

**2002**

KIOSKO ZAHARREKO SORGIN JAIAK

Udalak txosna gunea jartzea debekatu zien baina sorginek topatu zuten alternatiba.

**2003**

KAMIOI ROCK-A, KALE NAGUSIAN

Kale Nagusian sartu zuten kamioia eta ondoan jarri zituzten txosnak, 2003tik 2005era.

**2006**

ANBULATEGI ZAHARREKO GUNEA

Sorgin Jaien aurreneko txosna gune egonkorra izan zen. 2009. urtean Loidibarrenera joan ziren.



Mailu Arruti, azalpenak ematen. TXINTXARRI



Argazkiko plazatxoan zegoen kioskoa. 2002ko jaiak egin zituzten bertan. TXINTXARRI



Amaia Amianok, Iratxe Zelaiak eta Enara Ieregik gidatu zuten kalejira. TXINTXARRI



Kontzertu akustikoa. TXINTXARRI



Kale Nagusian barrena olinpiadak egin zituzten. TXINTXARRI



Paella bazkaldu zuten. TXINTXARRI



Okendo plazatik Loidibarren pilotalekurantz egin zuten Sorgin Dantza. TXINTXARRI



Aurtengo panelak margotzen. TXINTXARRI



Bazkalosteko jokoetako bat. TXINTXARRI




Arranopola txarangako kideekin kalejira egin zuten sorginek. TXINTXARRI

GIZARTEA

# Lasarte-Oriak duen komunitate biziaren erakusle izan da hil honetako borobila ere

'Bolondres lana Lasarte-Orian' solasaldia aurrera eraman du Borobilean elkarteak

**Txintxarri**

Borobilean elkarteko lagunak, Zabaleta Auzolanekoak, Izan Inurriko-ak eta Sorgin Jaiak-ekoak izan dira Borobilean elkarteak hil honetan aurrera eraman duen saioko protagonistak. Zazpi lagun aritu dira hizketan: Joxe Mari Agirretxe eta Ixiar Arteaga, Alazne Legazkue, Julene Illarramendi eta Miren Cuerdo, eta Sara Etxeberria eta June Negredo, hurrenez hurren. Agirretxek hartu du hitza mahai inguruari hasiera emateko, eta hizlari bakoitzari bere buruaren aurkezpena egin eta zein eragiletako kide den kontatzeko eskatu die. Aginduak jarraituta, euren buruak aurkeztearekin batera, ordezkatzen duten taldean zein indargune ikusten dituzten azaldu dute solaskideek.



Ohi bezala, Oriarte BHIn batu da hil honetako borobila. TXINTXARRI

"Aritu izana eta egindako bidea mantentzea" nabarmendu ditu Arteagak. Bere atzetik, Legazkue mintzatu da, eta berak ordezkatzen duen eragilearen "indarra eta izaera ezberdina" zein taldearen "antolaketarako gaitasuna" nabarmendu ditu.

Izan Inurri elkarteko lagunek, aldiz, sortu duten inurri sarea eta hori osatzen dutenen "fideltasuna" goraipatu dute, eta Etxeberriak eta Negredok, ordea, talde gisa oinarri dituzten baloreak aipatu dituzte.

Ahulguneei begira jarri ditu Agirretxek gero. Bere izenean (ez taldearenean) hitz egin du Arteagak, eta taldean aritzeak norberari sor diezazkiokeen gorabeherak plazaratu ditu: "Zenbat eman asmatzea zaila egin zait, hori kudeatzea". Zabaletarrak, berriz, "geroz eta indibidualizatuagoa" den gizarteaz hitz egin du, baita horrek eragiten duen "harreman komunitarioen ahultzeaz" ere. Inurriko bikoak kontatu du, adibidez, euren jarduera aurrera eramateko herrian aurkitutako zailtasunak medio, elkarteak Usurbilen duela bere egoitza eta eguneroko martxak eraginda, lehenesten eta geroratzen dituzten zereginez ere aritu dira.

### Etorkizuneko erronkak

Erronkez hitz egiten lehenak Sorgin Jaiakeko lagunak izan dira. "Jatorri ezberdinetako jendearen integrazioa" aipatu dute lehenik. Talde gisa dituzten baloreak uneoro presente izaten dituzten arren, horiei "fidelago" izateko ahalegina ere nabarmendu dute. Illarramendik eta Cuerdok, Desafioei begira jarrita, bat nabarmendu dute: "Inurrien arteko konexioa mantentzea". Erakundeen aldetik etor litekeen lankidetza hitzarmen bat lotzea ere amesten dute.

Zabaleta Auzolaneko lagunek aldiz, auzo "solidarioago" nahi dute, eta baita "euskaraz bizitzea" bermatuko duena ere. Horrez gain, aipatu elkartea osatzen duten lagunentzat garrantzitsua da udalak auzoan aurrera eraman asmo dituen proiektuen aurrean, "erabakiak hartzeko gaitasun handiagoa" edukitzea. Errondarekin amaitzeko, "herriko elkarteak kontuan hartuko dituen udala" amesten dutela azaldu du Arteagak.

Saioa borobiltzeko, solasaldia entzutera joandakoei eman diete hitza.

Artikulua, osorik, *www.txintxarri.eus* atarian dago irakurgai.

Ttakun Kultur Elkartea

Zozketa!

Katxiporretaren eskutik PIRRITX, PORROTX ETA MARIMOTOTSEN Irri Berri disko-liburua eta Unibertsoaren sekretuak galdera erantzunen karta jokoa zozkatuko ditugu.

Eman izena hilaren 20a baino lehen.

Bazkide zara?

*harpidetza@ttakun.eus* helbidean, 943-37 14 48 zenbakira deituta eta 646 82 44 66 (whatsapp)



KULTURA

# Hemezortzi musika talde ariko dira festetan; horien artean lau, herritarrak

"Askotariko adin eta gustuentzako" musika emanaldiak izango dira sanpedroetan

**Txintxarri**
Agustin Valdivia alkateak eta Jaietako zinegotzi Txus Alonsok udalak aurtengo San Pedro Jaietan jendaurrean ariko diren musika taldeak ezagutarazi dituzte. Horien bitartez, "udalerriko kaleak eta plazak askotariko adin eta gustuentzako agertoki handi" bilakatu asmo dituzte.

Alonsok nabarmendu du programazio "orekatu eta pentsatua" eskaintzea izan dela helburu nagusietako bat, herritar guztiek jaien barruan "euren espazioa" aurki dezaten. Hori horrela, "askotariko estiloetako" musikaz gozatu ahal izango dute emanaldietara joango direnek, hala nola, "pop-rocka, festetako musika, emanaldi bereziagoak eta gaueko zein dantzaldiko girokoak". Programatutako kontzertu guztien artean, gainera, herriko artistak ere izango dira: Jagoba, Hazas, The Noise Makers eta Ibai Berriak.

Era berean, ezagutarazitako programazio prestatu eta posible egiteak dakarren "antolamendu bolumen handia" ere azpimarratu dute. Hori horrela, Valdiviak azaldu du udalak "ahalegin handia" egin duela lasarteoriatar guztientzako jai "ireki eta parte hartzaileak prestatzeko, eta jaiak sailari zein festen antolakuntzan inplikatutako kolektibo guztiei eskerrak eman dizkie.



Ezker-eskuin: Jaietako zinegotzi Txus Alonso eta Agustin Valdivia alkatea. TXINTXARRI

## Kontzertuen egun, leku eta orduak

**Ekainak 26, ostirala**
• Okendo plaza:
23:00etan, Jagoba.
23:50ean, Hazas.
01:30ean, Mirari.
• Isla plaza:
23:00etan, Los Tenampas.
• Gazte eremua:
00:00etan, DJa
• Jaizkibel plaza:
00:30ean, La otra oreja

**Ekainak 27, larunbata**
• Okendo plaza:
23:00etan, Chambao.
01:30ean, Modus Operandi.
• Isla plaza:
13:00etan, Voces Navarras.
23:00etan, Orquesta Pasarela
• Gazte eremua:
00:00etan, DJa
• Jaizkibel plaza:
00:00etan, La orquesta Mondragon.

**Ekainak 28, igandea**
• Okendo plaza:
00:00etan, Süne.
• Isla plaza:
19:00etan, Mocedades
00:00etan, Duo Imperial
• Gazte eremua:
23:00etan, DJa
• Jaizkibel plaza:
00:00etan, El gato con jotas

**Ekainak 29, astelehena**
• Isla plaza:
23:00etan, Orquesta Tsunami
• Gazte eremua:
23:00etan, DJa
• Jaizkibel plaza:
20:00etan, The Noise Makers

**Ekainak 30, asteartea**
• Okendo plaza:
18:00etan, Las Balkan Paradise Orchestra
• Isla plaza:
19:00etan, Ibai Berriak

GIZARTEA

# Herritar guztientzako "hausnarketa eta bizikidetza guneak" sortzeko helburuarekin antolatu dituzte

LGTBIQ+ fobiaren aurkako nazioarteko egunaren eta LGTBIQ+ harrotasunaren nazioarteko egunaren harira antolatutako programazioaren berri eman du Lasarte-Oriako Udalak

**Txintxarri**
Ekimena maiatzaren 17tik ekainaren 28ra bitartean aurrera eramango dute, eta antolatzaileen helburua da "berdintasunarekin, aniztasun afektibo-sexualarekin eta genero aniztasunarekin duen konpromisoa indartzea". Horrekin batera, "herritar guztientzako hausnarketa eta bizikidetza guneak sortzea" ere badu xede.

Publiko zabalari zuzendutako askotariko proposamenak biltzen ditu programazioak. Kultura, hezkuntza eta sentsibilizazio jarduerak; besteak beste, familientzako tailerrak, literatur aurkezpenak, ikus-entzunezko proiekzioak, hitzaldiak eta erakusketak iragarri dituzte.

Gizarte Zerbitzuetako zinegotzi Lourdes Acevedok azpimarratu du aurkeztutako programazioak "gizarte gisa aniztasunaren errespetuan aurrera egiten jarraitzeko beharrari" erantzuten diola, "edozein diskriminazio eta indarkeria motaren aurka" eginez. Kultura saileko ordezkari politiko Ainara Elicecheak, berriz, honako adierazpenak egin ditu: "Sentsibilizatzeko, pentsamendu kritikoa sortzeko eta askotariko errealitateak ikusarazteko tresna garrantzitsua da kultura".

## Egitaraua

**Hilak 19, asteartea**
• Kultur etxea:
17:30etik 19:00etara: *Zaindu maite duzun oro* familientzako saioa eskainiko du Somos las Bitxis-ek.

**Hilak 21, osteguna**
• Antonio Mercero aretoa:
18:30etik 20:00etara: *La rebelión de las hienas* eta *Las hermafroditas del siglo XXI* liburuak aurkeztuko ditu horien idazle Mer Gomezek. Maider Galardi Fernandez de Agirrek gidatuko du saioa.

**Hilak 28, osteguna**
• Antonio Mercero aretoa:
18:30etik 20:00etara: *Alternativas para hacer frente a las violencias por motivo de orientación sexual e identidad de género* hitzaldia eskainiko du Elena Olaortua Gonzalezek.

**Ekainaren 1etik 30era**
• Udal Liburutegia:
Bulego ordutegian: *Gorputzak* erakusketa.

**Ekainak 5, ostirala**
• Kultur etxea:
18:30etik 20:00etara: Film laburren proiekzioa, ZINEGOAKekin lankidetzan.

**Ekainak 9, asteartea**
• Kultur etxea:
18:30etik 20:00etara: Irakurle Txokoarekin eta Transmaribibollo kolektiboarekin elkarlanean, Danele Sarriugarteren *Beste zerbait* liburuaren gaineko solasaldia.

**Ekainak 16, asteartea**
• Antonio Mercero aretoa:
18:30etik 20:00etara: *Garen piztiaz beste. Hitz egin liteke euskal transfeminismoaz?* hitzaldia eskainiko dute Iñi Etxezarreta Tocak eta Elene Lopetegi Oleak.

**Ekainak 19, ostirala**
• Kultur etxea:
20:00etatik 22:00etara: *La misteriosa mirada del flamenco* filma emango du Okendo Zinema Taldeak.



Afixa iragarlea. TXINTXARRI

POLITIKA

# Gizartearen "gaitz handiena" denaren aurka idatzi du Pello Salaburuk

'Panfleto bat atzenduraren kontra' lana aurkeztu du Antonio Mercero aretoan

**Iñigo Gonzalez Sarobe**

Antonio Mercero aretoa betetzeko adina jende bertaratu zen hilaren 9ko aurkezpenera, Pello Salabururen *Panfleto bat atzenduraren kontra* lanak herritarren jakin-mina piztu izanaren seinale. Egileak hitza hartu aurretik Imanol Lizarraldek eta Anton Urrak hartu zuten hitza, alboan zuten laguna aurkezteaz gain idazkia testuinguruan jartzeko. "Lehen eskutik ezagutu du Salaburuk euskal gatazka eta bokazio profesionalari gehitu dio militantzia etikoa", azaldu zuten. "Horra hor liburuaren gakoa: atzenduran ez dezagula utzi herritar askok jasandako sufrikarioa eta ez dezagula ahaztu horrek dakarren ardura politikoa, gure artean bizirik dirauena". Nabarmendu zuten ez dela tesi akademikoa, baizik eta eztabaida pizteko lana, "hitz erdirik gabe" eta Salabururen "bizipen eta kezka pertsonaletatik idatzitakoa".



Ganbo Iturri elkarteak antolatu zuen liburuaren aurkezpen ekitaldia. TXINTXARRI



Pello Salaburu, lanari buruzko azalpenak ematen. TXINTXARRI

Gizartearen "gaitzik handiena" den ahanzturaren aurrean "memoria integrala" aldarrikatu zuten, kontzeptu horrek Salabururentzat "hiru adar nagusi" dituela azaltzearekin batera: 1936ko gerra osteko indarkeria eta ondorengo isiltasuna; Espainiar Estatuaren aparatuen (polizia eta epaitegiak) torturak, erailketak eta inpunitatea; eta ETAko zein ezker abertzaleko kideen aldetik etorritako gogorkeria. "Arreta berezia" jarri dio azken horri, "herritarren zati baten sostengua eta inplikazioa izan duelako". Horiek guztiak ez ezik, munduko beste herrialde batzuetako kasuak ekarri ditu panfletora Salaburuk, hala nola Frantzia, Italia, Irlanda edota Yugoslavia zena".

Egileari berari hitza eman aurretik egindako lanaren balioa eta izandako jarrera "ausarta eta konprometitua" aitortu zizkioten Lizarraldek eta Urrak. "Lan horri esker ez dugu ahaztuko eta Euskal Herria ez da amaituko; memoriaren garapenean ohorezko tokia izango du". Horrekin batera, panfletoa irakurri ostean ongi iruditu ez zaizkien bizpahiru kontu aipatu zizkioten Salabururi.

### Sortzearen arrazoia, "kezka"

Azken urteetan ikusitakoak "kezka izugarria" eragin zion Salabururi eta orduan hasi zen panfletoa sortzen. "Gauza guztien gainetik, ahanztura sustatzea da sektore handi batzuen helburu nagusia. Iruditzen zait urratsak egin nahi ditugula aurrez gertatutako guztia ahaztuta; zergatik?". Hori horrela, idatzi du nagusiki ETAren terrorismoari eta Ezker Abertzalearen jarrerari buruz; Francisco Franco diktadorea hil osteko trantsizio garaiari eta amnistiari buruz; eta 1936ko gerraren osteko biolentziari eta isiltasun jarraituari buruz. "Egonezina" sortu zion ariketa horrek, jabetu zelako guztietan zegoela biktimekiko "baztertze sistematikoa".

> "Badirudi gizarteen bidea ahaztearena dela; horren aurrean, galtzaileak beti dira biktimak"

Kontu gehiagotaz jabetu zen egilea. Esaterako, atzendura ez dela protagonista Euskal Herrian soilik, baizik eta munduko beste toki askotan ere bai. "Ia-ia lur jota utzi ninduen horrek, badirudi tokian tokiko gizarteek hautatzen duten bidea ahaztearena dela; galtzaileak beti dira biktimak".

Aurkezpen ekitaldia amaitu ostean, Abend jatetxean bazkaldu zuten hitzordura bertaratutako askok.

NEURE KABUZ

# Mila Kultura



**LIERNI REKONDO**
KOLABORATZAILEA

Bolo-bolo darabilgu aniztasun hitza azken urteetan. Lasarte-Orian, ordea, aniztasuna ez da hitzaldi politetarako baliabidea; gure herri biziaren islada da. Hamarkadetan zehar, leku ezberdin askotatik etorritako jendeak eraiki du herri hau. Extremaduratik, Galiziatik edo Gaztelatik lehenengo; eta urrunagoko lurretatik gero: Hego Amerikatik, Afrikatik, Magrebetik edo Ekialdeko Europatik. Bakoitzak bere motxilan ekarritako istorioek, hizkuntzek eta ohiturek egin gaituzte gaur garena.

Hilaren 8an ospatu genuen Mila Kultura eguna ez zen soilik folklore eta kultura erakustaldi bat izan. Festa horren atzean mezu sakonago bat baitzegoen: elkar ezagutzea dela aurreiritziak uxatzeko biderik onena. Janariak, musikak eta dantzak hizkuntza unibertsala hitz egiten dute, eta orduan konturatzen gara, funtsean, denok bilatzen dugula gauza bera: bizitza duin bat, komunitate baten parte izatea eta gure sustraiak ahaztu gabe etorkizun berri bat eraikitzea. Horregatik, iruditzen zait, ekimen hau ez dela kanpora begirako erakusleiho bat, barrura begiratzeko modu bat baizik. Gure bizilaguna nor den ikusteko aukera ematen digu, bere jatorria edozein dela ere, gure kale berdinak zapaltzen dituela eta gure herri identitatearen eraikuntzan parte hartzen duela ulertzeko.

> "Orduan konturatzen gara, funtsean, denok bilatzen dugula gauza bera: bizitza duin bat"

Hala ere, jai egunetatik harago doa erronka. Mila Kultura gogorarazle bat da, urteko beste 364 egunetan landu behar dugun errespetuaren hazia. Aniztasuna modu arduratsu batean zaindu behar den altxor bat baita.

Herri gisa, gure esku dago integrazioa erabatekoa izatea: eskoletan, lanpostuetan, aisialdian… funtsean, egunerokotasunean. Ez da nahikoa elkarren ondoan bizitzea; elkarrekin bizi behar dugula, zubiak eraikitzen badakigula erakutsi dugu. Gure indarra ez baitago homogeneotasunean, nahasketan baizik. Jarrai dezagun, beraz, herri hau munduko txoko guztietatik etorritako jendearen topaleku goxo bilakatzen, gure aniztasuna delako, gure ondasunik handiena.

POLITIKA

# Herrigintzaren garrantziaz




LASARTE-ORIAKO EH BILDU

Buruntzaldeko EH Bilduren taldeetako kideek Usurbilen egindako Bat Egin egunean parte hartu dute berriki. "Instituzioetan egotearekin batera, herrigintza funtsezkoa da guretzat eta hori aldarrikatu dugu topaketa honetan; politikarekiko desafekzioaren garaian are inportanteagoa da gertuko jarduna".

GIZARTEA

# Udaberria, festa giroa eta auzolana loratu dira Iñigo de Loiola kaleko ospakizunean

Aurreko urteetako arrakastak bultzatuta, bi eguneko jaia ospatzera animatu dira ILBE bizilagun elkarteko kideak, aurreneko egunean haurrei protagonismo berezia emanda. Bigarrenaz denek disfrutatu dute


Bi haur, jostatzen. TXINTXARRI


Hilaren 8ko arratsalde euritsua goxatzeko txokolatea prestatu zuten. TXINTXARRI


Hilaren 8an eta 9an ederra izan zen Iñigo de Loiola kaleko plazako giroa. TXINTXARRI

**Lierni Apaolaza Urdanpileta**

Laugarrenez ospatu zuten Udaberri Festa Iñigo de Loiolako bizilagunek hilaren 8an eta 9an. Aurreko edizioetan, egun bakarrekoa izan zen jaia, baina aurten ospakizunari egun bat gehiago gehitu diote. Gogotik gozatu zuten pandemia garaitik datorren festaz erdiguneko bizilagunek.

Haurren txandarekin hasi ziren. Izan ere, ostiralean, etxeko txikienentzako egitaraua prestatu zuten: txokolate jana eta jolasak. Jende mordoa inguratu zen Iñigo de Loiolako plazara, ateri zen bitartean. Berrikuntza modura, krispetak ere eskaini zituzten tabernan.

Egun handirako beroketa lanak eginda, larunbatari alaitasunez ekin zioten. Goizean goiz, diana egin zuen Ankoker trikitixa taldeak. Jarraian, jolasteko aukera izan zuten haurrek, baita aurpegiak eurak aukeratutako irudiarekin apaintzeko ere. Haize bolada indartsuak zirela-eta, ezustekoak izan ziren, karpak kasik hegan atera baitziren. Umoretsu eta auzolanean, berehala gorde zituzten. Bitartean, pintxo-potearekin hasi ziren izakinak amaitu arte. Menuan honako jaki hauek izan zituzten: patata tortilla, urdaiazpikoa edo txistorra. Edateko, Yon Pavon Cocktails Event-ek prestaturiko koktelak, nahiz eta Pavonek ezin izan zuen barran egon. Freskagarriak, ura eta bestelakoak ere saldu zituzten.

Eguerdira arte, bizkotxo lehiaketan parte hartzeko aukera izan zuten bizilagunek. 25 gutizia aurkeztu zituzten guztira gazteen eta helduen kategorien artean. Itxura eta zapore ederra zutenez, kostata erabaki zituzten epaileek maila bakoitzeko hiru irabazleak. Dena dela, bazkariarekin hasi aurretik jakinarazi zuten zeintzuk izan diren hautatuak. Sari ederrak jaso zituzten: antolatzaileen establezimenduetan gozatzeko afariak eta jolasak, besteak beste. DJ Karpin-ek giroa musikatu zuen eta horretarako euskal kantutegitik abiatutako errepertorio bizia aukeratu zuen. DJarekin batera, Kilkerband txarangak ere erritmoa ipini zion goizari. Dantzan aritzeko LOZETeko erraldoiak eta buruhandiak izan zituzten bidelagun.

Plaza jendez gainezka zegoelarik, paella goxo-goxoa jan zuten 250 lagunek. Bazkalostean bingoan aritu ziren eta ederra izan zen giroa, musikarekin batera dantzatzeko tartea egin zutelako. Irabazleek, gainera, antolatzaileek eskainitako opariak jaso zituen. Kurioski, aho garbiketa bat lortu zuen parte hartzaile batek. DJ Karpinek girotu zuen festa amaiera.

**Iñigo de Loiolako plaza jendez gainezka zegoelarik, paella goxoa jan zuten 250 lagunek**


Haurrentzako nahiz helduentzako bizkotxo lehiaketaren irabazleak. TXINTXARRI


Buruhandi bat, jende bila. TXINTXARRI


Kilkerband-ekoak, jotzen hastear. TXINTXARRI


Irabazi ala ez, giro ederrean jokatu zituzten bingoko partida guztiak. TXINTXARRI



Kulturartekotasunari buruzko muralak sortu zituzten herriko hiru ikastetxeetako ikasleek. TXINTXARRI



'Zer dakizu Afrikari buruz?' sentsibilizazio saioa egin zuten Merceron. TXINTXARRI

GIZARTEA

# Kultura eskutik eskura zabaldu dute Okendo plazako jaialdi koloretsuan

Lasarte-Oriako Bizipoza Taldeak kulturartekotasuna lantzen jarraitzen du eta horregatik ospatu du Milakultura Jaia. Okendo plazako ospakizunaz gain alor horretatik harago dagoenaz hausnartu dute Ndank Ndank elkarteko kideekin

**Lierni Apaolaza Urdanpileta**

Goizetik iluntzera arteko programa ondu zuten Lasarte-Oriako Bizipoza taldekoek, Kulturak eskutik eskura lelopean, hilaren 8an. Herriko aniztasun kulturala aberastasuna dela erakusteko asmoz, hamaika jarduera aurrera eraman zituzten.

Egunarekin hasteko, muralak sortu zituzten herriko hiru ikastetxeetako ikasleek; hots, Oriarteko, Sasoeta-Zumaburuko eta Landaberriko gazteek. Okendo plazan taldeka antolatuta, irudi ederrak egin zituzten. Askatasun osoz aritzeko aukera izan arren, jarraibide batzuei erreparatu izan behar zieten. Izan ere, kreazio orotan aurtengo leloa leitu behar zen. Era berean, eskuen marrazkiak agertu behar ziren, eta Bizipoza taldearen logoa ere bai. Batzuek imajina koloretsuak sortu zituzten; beste batzuek, aldiz, gometsez beteriko mosaikoak. Eurak sortutako irudiak herriko dendetan izango dira ikusgai. Jarraian, dantzan aritu ziren herriko sudurgorrien doinuek lagunduta. Bukatzeko, talde argazkia atera zuten. Porrotx pailazoa aritu zen dinamizatzaile lanetan.

*Zer dakizu Afrikari buruz?* sentsibilizazio saioarekin hasi zen arratsaldea. Ndank Ndank elkarteko Eli Dominguez eta Mamadou Sarr kideak izan ziren aurkezleak. Sarren sorterriari buruz aritu ziren, hau da, Senegalen gainean. Mercero gunean bilduta, arretaz entzun zituzten kontinenteari eta haren bitxikeriei buruzko kontuak Ttakun Kultur Elkarteko Gazteklubeko LH 3ko gaztetxoek. Galdera mordoa egitera ere ausartu ziren.



Ikasle talde bat, Porrotx pailazoarekin. TXINTXARRI

### Erakustaldi koloretsua

Jaiarekin jarraituz, Okendo plazara jaitsi eta koreografia ederrak dantzatu zituzten egitasmo bereko Lehen Hezkuntzako 4-5-6 mailakoek. Aldaka mugitzen laguntzeko, hiru kantu izan zituzten bidelagun: Ndank Ndank elkartearen *Elkarri*, Bizipozaren *Bizipoza auzolan* eta Pirritx, Porrotx eta Marimototsen *Eskuetan*.

Parte hartzaile mordoa oholtzaratu zen eta den-denek euren dantzak eta musikak erakutsi zituzten. Hasteko, Saharitarekin Elkartasuna Lasarte-Oria eragileko kideak igo ziren. Zaghareet (irrintzi sahararra) erakustaldia egin zuten. Mertxe Rodriguez irrintzika aritu zen haiekin, Txalagoreko txalapartariek lagunduta. Lierni Rekondok ere bertsoa bota zuen. "Aurreiritzi zaharrak, baina begirada berrietan" errealitatearekin gogoratu da Rekondo. Ondoren, danbor doinuez bete zuten enparantza Senegaleko ordezkariek. Ikusi mendizaleak kantuarekin ere ausartu ziren. Ondotik etorri ziren Semblante Andaluzeko kideak eta haiekin batera eguzkia. Bi sevillana dantzatu eta tokia egin zieten Nikaraguako kideei. Beraien herrialdeko jantzi tradizionala erakutsi eta dantzan aritu ziren, besteak beste, *Nicaragüa Nicaragüita* abestiarekin.

Hain egun ederrarekin amaitzeko, *Txoria txori* kantatu zuten parte hartzaile guztiek, eszenatoki gainean. Xumela Abesbatzako kideek ere animatu ziren.

Bezperan, ospakizunerako baino hausnarketarako tartea hartu zuten Lasarte-Oriako Bizipoza Taldeko kideek. Kulturartekotasunetik haratago: eguneroko arrazakeria, estereotipoak eta begirada antiarrazista solasaldia eman zuen Ndank Ndank elkarteko kide Eli Rodriguezek, Oriarte Landaberri institutuan.



Zaghareet irrintzi sahararren erakustaldia egin zuten. TXINTXARRI



Nikaraguako jantzi tradizional koloretsuak erakutsi zituzten. TXINTXARRI


Trikitixaren eta panderoaren erritmoa jarraitzera animatu ziren. TXINTXARRI


Beñat Telleria harri jasotzailea. TXINTXARRI


Albokak girotu zuen elizkizuna. TXINTXARRI


Txorizo pintxo, salda eta edari freskoekin egin zuten hamaiketakoa. TXINTXARRI

KULTURA

# Erromeria alaitsua eta jendetsua ospatu dute Azkorteko baselizan

Eguraldi ona lagun, azken urteetako topaketa jendetsuena izan da aurtengoa

**Lierni Apaolaza Urdanpileta**

Goiz eguzkitsua izan zen hilaren 10ekoa. Alaia eta argitsua, bai metereologikoki, bai emozionalki. Izan ere, Azkorteko erromeria ospatu zuten Buruntza mendiaren magaleko baselizan. Ohiko legez, festa Ttakun Kultur Elkarteak antolatu zuen Lasarte-Oriako udalarekin elkarlanean. Oinez zein kotxez igo ziren ermitara lasarteoriatarrak eta inguruko herrietakoak. Aurten, autobusez ailegatzeko aukera ere bazenez, gizon zein emakume mordoa joan zen Biyak Bat elkarte pareko geltokitik abiatuta.

Postuak postu, Lierni Arozenak eta Olaia Rekondok girotu zuten hamaiketakorako garaia. Sabela beteta eta eztarria freskatuta, lotsati hasi ziren mendizaleak dantzan. Hasiera batean, pare bat lagun ziren aldakak mugitzen, baina pixkanaka-pixkanaka gehiago batu ziren, talde polita osatzeraino. Plaza dantza saio inprobisatua egitera ere animatu ziren. Ederki egin zuten dantzan eta ingurukoek ere gogotik gozatu zuten eurak ikusten.

**Aizkorak eta harriak**

Eguerdi partean ekin zioten herri kirolen erakustaldiari. Alde batetik, Beñat Telleria harri jasotzailea aritu zen. Bestetik, Julen Gabirondo eta Aratz Mugerza aizkolariak. Hiru erakustaldi burutu zituzten, txandaka. Aizkolariak hasi ziren. Lehenik eta behin, ea nork enborra golpe gutxiagoz mozten zuten neurtu zuten. Gabirondo gailendu zen 33 kolperekin. Jarraian, nork egiten zuen azkarren. Mugerza izan zen garaile lehia horretan. Amaitzeko, zeinek ebakitzen zituen hiru bizkorren. Gabirondo izan zen lehena. Gero, ahal beste altxaldi egin zituen 150 kiloko errektanguluarekin Telleriak, bi minututan. Lau egin zituen guztira. Ondotik, 113 kiloko kubikoarekin hamalau altxaldi egin zituen beste bi minututan. Bukatzeko, 100 kiloko bola hamar aldiz jaso zuen, eta ariketarekin amaituta, ikusleen txalo artean egin zuen agurra. Ttakun KEko Kultura arduradun Arkaitz Illarramendik gidatu zuen erakustaldia eta behin baino gehiagotan eskatu zituen kirolarientzako txalo eta animoak.

Goiz apartarekin amaitzeko, elizkizunaren txanda izan zen. Alboka Abesbatzak musikatu zuen meza. Baseliza jendez beteta zegoen. Bien bitartean, trikitia eta panderoa bueltatu ziren oholtzara, etxerako buelta alaitzeko gogoz.


Ikasturte amaierako festa bukatzeko, talde argazkia atera dute. TXINTXARRI

EUSKARA

# Euskaraz sortu, ikasi, partekatu eta gozatu dute herriko 130 familiak

**Txintxarri**

GurasoLeku egitasmoan parte hartu duten dozenaka familiek festa giroan itxi dute ikasturtea. Urritik hona egindako lana errepasatu dute, ordainetan diplomak jaso dituzte eta behin baino gehiagotan kantatu eta dantzatu dute Euskararen Maratoiko zortzikoteko kide izan diren zenbait lagunekin batera. Mezu baliotsu batekin itxi dute ekitaldia: familia giroan txikienei erakustea bezain garrantzitsua da haiengandik egunero ikastea. Hori guztia, euskaraz, noski.

Bizitza kantu bat da dantzatu eta abestu dute GurasoLeku egitasmoan parte hartu dutenen azken festan. Kantatzen ez duenak, zorionik ez du diote Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoek eta, gauza bera esan daiteke esperientziak, bizipenak, jakintza eta bestelakoak partekatzen ez dutenekin. Bada, hori bera egin dute urritik maiatzera herriko 130 familiak baino gehiagok, arestian aipatutako proiektu horretako hiru adar hauetan: GurasoLagun, GurasoLandia eta GurasoTegi. Horrez gain, GurasoLandian aritu direnek topaketa bereziak egin dituzte hilabetean behin, TrukeLandian. Programa bat edo bestean aritu, lanabes eta harremantzeko modu berbera erabili dute guztiek: euskara.

Urriaren 17an eta 18an XI. Euskararen Maratoia ospatuko dugunez, aurreko edizioetan zortzikoteko kide izandakoek dinamizatu dute ekitaldia.

EUSKARA

# Justizia linguistikoa izango dute hizpide Udaltop jardunaldietan

**Txintxarri**

Hilaren 21ean eta 22an aurrera eramango dute udaletako Euskara zerbitzuen topaketen hemezortzigarren edizioa Manuel Lekuona Kultur Etxean. "Justizia linguistikoa ikuspegi filosofiko eta politikotik lantzeko ahalegina egiteaz gain, hizkuntza gutxituak indarberritzeko oinarriez hitz egingo dugu".

*Justizia linguistikoa: diskurtsoak, praktikak eta oinarriak berdintasuna helburu* izenburupean aurrera eramango dute XVIII. Udaltop, beraz, justizia linguistikoa izango da aurtengo gogoetagai nagusia. Gai hori ikuspegi filosofikotik nahiz politikotik jorratuko dute parte hartzaileek eta, besteak beste, hizkuntza gutxituak indarberritzeko oinarri etikoak eta politikoak jarriko dituzte mahai gainean. Gero, ardatz horiek hizkuntza politiken marko teorikoetara zein praktikoetara eramateaz hitz egingo dute.

Antolatzaile lanetan euskararen lurralde guztietako erakundeak ari dira aurten ere: Euskal Hirigune Elkargoa; Eusko Jaurlaritza; Nafarroako Gobernua; Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako foru aldundiak; eta Lasarte-Oriako Udala. EUDEL, UEMA eta Kataluniako Consorci per a la Normalització Lingüística (CPLN) erakundea bidelagun izango dituzte.

EKONOMIA

# Gipuzkoako Eraikuntzako Lanbide Heziketa Eskolako ikasleek Beterri Saretuz gertutik ezagutzeko aukera izan dute

Ihitten eta Hiruki Larroxa kooperatibetako Idoia Telleriak eta Eñaut Retegik Beterri Saretuz eskualdeko eragileen elkarlanezko sarea aurkeztu die EAGIko hiru ziklo ezberdinetako ikasleei

**Txintxarri** ESKUALDEA

Hilaren 5ean Beterri Saretuz sarea Gipuzkoako Eraikuntza Eskolara joan zen, ziklo ezberdinetako ikasleei eskualdeko eragileen elkarlanezko sarea bertatik bertara ezagutarazteko. Saioa Ihitten elkarteko eta Hiruki Larroxako kooperatibetako Idoia eta Eñautek gidatu zuten, sareko kide gisa, eta helburu nagusia izan zen gazteei tokiko errealitate ekonomiko eta sozial eraldatzailea hurbiltzea, *Enplegagarritasunerako ibilbide pertsonala* gaiaren barruan.



Ihitteneko eta Hiruki Larroxako kideek Beterri Saretuz sarea aurkeztu zieten ikasleei. IHITTEN

## Beterri Saretuz-en aurkezpena

Saioaren lehen zatian, Beterri Saretuz zer den azaldu zuten: eskualdeko enpresa, kooperatiba eta askotariko eragileek osatutako elkarlan sarea, tokiko garapen ekonomiko eta soziala ikuspegi eraldatzailetik sustatzeko sortua.

Esplikatu zuten zer egiten duen sareak egunerokoan: kideen arteko harremanak eta sinergiak sustatu, proiektu bateratuak martxan jarri, lurraldeko beharrei erantzuten dieten ekimenak bultzatu eta Ekonomia Sozial Eraldatzailea ardatz duten praktikak indartu.

Halaber, etorkizunari begirako helburuak partekatu zituzten: lurraldean errotutako jarduera ekonomikoa sendotzea, lan duina eta kalitatezkoa sustatzea, eta elkarlanean oinarritutako garapen eredua indartzea, pertsonak eta komunitatea erdigunean jarrita.

## Sarea: kolektiboan pentsatuz

Bigarren zatian, sarearen izaera kolektiboa azpimarratu zuten. Beterri Saretuz osatzen duten eragileak aurkeztu zizkieten: sektore ezberdinetako enpresak eta kooperatibak (industria, zerbitzuak, hezkuntza, zaintza, teknologia, komunikazioa…), tamaina eta jarduera desberdinetakoak, baina balio partekatuetan oinarrituak.

Ikasleek ezagutu ahal izan zuten zein lan mota egiten diren sareko kideetan, zer profil profesional behar diren eta zein aukera sor daitezkeen etorkizunean bertan lan egiteko edo proiektu berriak sustatzeko. Lurraldean bertan jarduteak duen garrantzia azpimarratu zen, tokiko ekonomiaren eta komunitatearen indartzean duen eragina nabarmenduta.

## Ekonomia Sozial Eraldatzailea: praktika eta hezkuntza

Azkenik, Ekonomia Sozial Eraldatzailea zer den azaldu zieten modu ulergarri eta praktikoan: irabazi asmorik gabeko edo irabaziak berrinbertitzen dituzten egiturak, erabakiak modu demokratikoan hartzen dituzten erakundeak, eta jarduera ekonomikoa gizartearen zerbitzura jartzen duten proiektuak.

Kontzeptua ez zieten soilik teorikoki azaldu; sareko kideen eguneroko praktiketan nola gauzatzen den partekatu zuten: gobernantza parte hartzailea, lan baldintza duinak, genero ikuspegia, ingurumenarekiko konpromisoa eta komunitatearekiko lotura estua.

Era berean, hezkuntzarako prestatutako gidak eta baliabide pedagogikoak aurkeztu zizkieten, ikastetxeetan Ekonomia Sozial Eraldatzailea lantzeko tresna gisa. Helburua da gazteek bestelako eredu ekonomikoak ezagutzea, ikuspegi kritikoa garatzea eta etorkizunean eragile aktibo izatea.

Saioa giro parte hartzailean garatu zuten; ikasleek galderak eta hausnarketak egiteko aukera izan zuten. Beterri Saretuzetik balorazio oso positiboa egin dute esperientziaren inguruan, hezkuntza komunitatearekin elkarlana estrategikotzat jotzen baitute: “Gazteek gure lurraldeko errealitatea eta hemen eraikitzen ari garen alternatibak ezagutzea funtsezkoa da etorkizun kolektibo sendo bat eraikitzeko”.

Ekimen hori Beterri Saretuzek lurraldean saretzea, ezagutza partekatzea eta belaunaldi berriekin zubiak eraikitzea helburu duten jardueren baitan kokatzen da, tokiko garapen eredu bidezkoago eta iraunkorrago baten alde.

BETERRI SARETUZ-EN WEBGUNEA, HEMEN



EAGIko Eraikuntza teknikari, Eraikuntza obrak antolatzeko teknikari eta Obra zibileko proiektu teknikari zikloko ikasleak. IHITTEN

ATLETISMOA

# Lasarte-Oriako atletak ederki jardun dira maila ezberdinetako txapelketetan

18 eta 20 urtez azpiko Euskadiko txapelketan podiumean izan dira herritarrak

**EUSKADIKO TXAPELKETA**
18 urtez azpikoa
- Eider Redondo (Ostadar SKT):
  - Luzera jauzia - 1º
  - Xabalina jaurtiketa - 3º

**20 urtez azpikoa**
- Oinatz Almagro (Ostadar SKT): jauzi hirukoitza - 1º
- Hodei Garcia (Real Sociedad): 200 m. - 3º

**Txintxarri**
Lasarte-Oriako atletek ez dute atsedenik maiatzean zehar. Ostadar SKTn zein beste taldeetan lehian dabiltzan gazte eta haurrek asteburuero dute hitzorduren bat. Hilaren 9an eta 10ean, maila ezberdinetako Euskadiko zein Gipuzkoako txapelketetan parte hartu zuten eta Euskadirekin ere lehian izan ziren 16 urtez azpiko Erkidegoen arteko Espainiako txapelketan. Guztiak ongi jardun ziren eta hiru domina eta marka hobekuntzaren bat ere eskuratu zituzten.

18 eta 20 urtez azpiko Euskadiko txapelketan jantzi zituzten herriko ordezkariek dominak. Ostadar SKTko zazpi kidez gain, Real Sociedad taldean dagoen Hodei Garcia ere izan zen Gasteizeko (Araba) pistan borrokan.

Herriko ordezkariak lehen postuetan izan ziren proba askotan, baina talde urdin-beltzeko Eider Redondo eta Oinatz Almagro eta aipatu Garcia izan ziren podiumera igo zirenak. Jauzi probetan bina Euskadiko titulu eta lasterketa zein jaurtiketa probetan bina brontzezko postu lortu zituzten. Ikusi taula.



Redondok bi domina eskuratu zituen. Irudian, luzera jauziko podiumean. G. REDONDO

**Lan ona Euskadirekin**
Ourensen (Galizia) ere izan ziren herriko ordezkariak lehian hilaren 9an eta 10ean. 16 urtez azpiko Erkidegoen arteko Espainiako txapelketa lehiatu zen eta Euskadiko ordezkaritzan hiru herritar izan ziren: Ostadar SKTko Aitor Martin eta Nahia Garcia eta Real Sociedad taldeko Alaia Romero.

Martinek pisu jaurtiketan parte hartu zuen eta bere marka ondu zuen, 11,02 m. Garciak 10,34 metroko jauziarekin amaitu zuen jauzi hirukoitzeko proba eta Romerok 4x100 m. eta 4x300 m. erreleboetan parte hartu zuen B finaletan eta bietan bigarren izan ziren.

Horiez gain, infantil mailako gaztetxoek eskolarteko eta kluben arteko Gipuzkoako txapelketa jokatu zuten, hilaren 10ean, Donostian.

Ostadar SKTk nesken talde bat eta mutilen zein nesken errelebo bana aurkeztu zituen probara. Taldea zortzigarren sailkatu zen.

**Konbinatuak, Atsobakarren**
Ostadar SKTko eta herriko atletek hitzordu bikoitza izango dute hilaren 16-17ko asteburuan.

Hilaren 16an, 16 urtez azpiko gazteek Euskadiko txapelketari egingo diote aurre Bilbon.

Eta Gipuzkoako Eskolarteko txapelketekin jarraituz, hilaren 17an, atletismoko zaletuek harrobiko kirolarien lehiaketa ikusteko aukera izango dute Lasarte-Orian.

Proba konbinatuetako lehia antolatuko du Ostadar SKTk Atsobakar kirol guneko pistan eta Gipuzkoa osoko alebin zein infantil mailako gaztetxoak bilduko ditu. Horien artean borrokan izango dira herriko elkarteko 11 atleta: zazpi infantil eta lau alebin.

## ASTEBURUKO KIROL HITZORDUAK

### FUTBOLA
**LARUNBATA 16**

**GORENGO MAILA**
- **Ostadar SKT - Ast. Mundarro**
  17.50. Michelin kirol gunean.

**ERREGIONAL I. MAILA, IGOERA**
- **Urola KE B - Texas Lasart. CF**
  12.00. Argixao, Zumarragan.

**ERREGIONAL I. MAILA, KOPA**
- **Lengokoak KE - Ostadar SKT**
  19.15. Cesar Benito, Donostian.

**OHOREZKO J. MAILA, IGOERA**
- **Ostadar SKT - Mondragon CF**
  11.40. Atsobakar kirol gunean.

**JUBENILEN GORENGO MAILA**
- **Urnieta KE - Ostadar SKT**
  18.30. Urnietan.

**JUBENILEN I. MAILA, UD. KOPA**
- **Billabona KE B - Texas Lasart. CF**
  16.30. Arratzain, Villabonan.

**OHOREZKO K. MAILA, JAITSIERA**
- **Ostadar SKT - Aloña Mendi KE**
  15.30. Atsobakar kirol gunean.

**IGANDEA 17**

**OHOREZKO ERREGIONAL MAILA**
- **Ostadar SKT - Landetxa KT**
  11.30. Michelin kirol gunean.

**JUBENILEN GORENGO MAILA**
- **Texas Lasart. CF - Bergara KE B**
  13.25. Michelin kirol gunean.

**JUBENILEN I. MAILA, KOPA**
- **Orioko FT B - Ostadar SKT**
  17.00. Mendibeltz, Orion.

### ARETO-FUTBOLA
**LARUNBATA 16**

**OHOREZKO ERREGIONAL MAILA**
- **Euskalduna SD - Eguzki Arkupe Rehab.**
  16.30. Allurralde kirol., Andoainen.

**GAZTEEN MAILA**
- **Laskorain KE - Eguzki Lekuona T.**
  12.00. Usabal kirol., Tolosan.

**EUSKAL KOPA, KADETE MAILA**
- **Eguzki Escalerilla T. - Salburua**
  12.00. Maialen Chourraut kirol.

**INFANTIL MAILA, FINALA**
- **Eguzki Andatza T. - Lauburu Ibarra A**
  11.45. Bidebieta kirol., Donostian.

**IGANDEA 17**

**KADETE MAILA**
- **Aloña - Eguzki Escalerilla T.**
  12.00. Zubikoa kirol., Oñatin.

**OSTIRALA 15/IGANDEA 17**

**ESPAINIAKO TXAPELKETA**
- **Eguzki AFko Peru Azkarate eta Noel Benitez kideak 12 urtez azpiko Espainiako txapelketa jokatzen ari dira Euskadirekin.**
  Torrejon de Ardoz, Madrilen.

### BOLEIBOLA
**LARUNBATA 16**

**GIPUZKOAKO KOPA**
- **Aidean ZKE B - Ostadar SKT**
  18.00. La Salle ik., Zarautzen.

**K. ERRENDIMENDUA, 1-6 P.**
- **Aidean ZKE A - Ostadar SKT**
  13.00. La Salle ik., Zarautzen.

**K. PARTAIDETZA**
- **Tolobolei B - Ostadar SKT**
  09.30. Herrikide ik., Tolosan.

**IGANDEA 17**

**JUBENIL MAILA, 7-12 P.**
- **Suge Trebeak - Ostadar SKT**
  10.00. La Salle ik., Irunen.

### PILOTA
**OSTIRALA 15**

**ESKUZ, BANAKA, 4 1/2, N. 2. MAILA**
- **Oiarpe - Intza (Diaz de Gereñu)**
  18.00. 4. partida.Oiartzunen.

**ESKUZ, BANAKA, 4 1/2, K. 3. MAILA**
- **Intza KE (Lopez) - Gaztelupe**
  18.00. 1. partida. Loidibarren pil.
- **Intza (Lasa) - Bergara**
  18.00. 2. partida. Loidibarren pil.

**LARUNBATA 16**

**GOMAZKO PALETA, HERRIARTEKOA**
- **Tolosa - Lasarte-Oria**
  18.30. Beotibar, Tolosan.

**ESKUZ, BANAKA, 4 1/2, N. 2. MAILA**
- **Intza KE (Olazabal) - Gaztelupe**
  16.00. 3. partida. Michelin pil.

**ESKUZ, BANAKA, 4 1/2, K. EMAK.**
- **Intza (Iparragirre) - Alde Zaharra**
  16.00. 2. partida. Michelin pil.

**ESKUZ, BANAKA, 4 1/2, K. 2. MAILA**
- **Intza KE (Elola) - Tolosa**
  16.00. 4. partida. Michelin pil.

**IGANDEA 17**

**ESKUZ, BANAKA, 4 1/2, N. 1 MAILA**
- **Intza KE (Artetxe) - Legazpi**
  10.45. 2. partida. Michelin pil.

**ESKUZ, BANAKA, 4 1/2, K. 1. MAILA**
- **Intza KE (Jauregi) - Lapke**
  10.45. 1. partida. Michelin pil.

**ESKUZ, BANAKA, 4 1/2, K. 3. MAILA**
- **Bergara - Intza (Maiz)**
  10.45. 2. partida. Bergaran.

### JUDOA
**LARUNBATA 16**

**ESPAINIAKO SUPERKOPA**
- **LOKEko kadete mailako judokek Espainiako Superkopa jokatuko dute.**
  Egun osoa. Badajoz, Extremaduran.

**GIPUZKOAKO KOPA**
- **LOKEko alebin mailako judokek Gipuzkoako kopan parte hartuko dute.**
  Arratsalde. Urnietan.

**IGANDEA 17**

**GIPUZKOAKO TXAPELKETA**
- **LOKEko alebin mailako judokek Gipuzkoako txapelketa lehiatuko dute.**
  Goiza. Urnietan.

### IGERIKETA
**IGANDEA 17**

**IGERILARI OSOA**
- **Burutzaldea IKTko benjaminek Gipuzkoako Txapelketa Eskolarra - Igerilari Osoa proban egingo dute igerian.**
  Egun osoa. Zumaian.

### ERRUGBIA
**IGANDEA 17**

**OHOREZKO B MAILA**
- **Andorra R. XV - Gipuzkoa Sortzen**
  12.30. Andorran.

**OHOREZKO B M., IGOERA, FINALA**
- **CN Poble Nou - Gaztedi RT**
  12.00. Bartzelona, Katalunian.

### ATLETISMOA
**LARUNBATA 16**

**EUSKADIKO TXAPELKETA**
- **Ostadar SKTko atletek 16 urtez azpiko Euskadiko txapelketan parte hartuko dute.**
  Egun osoa. Bilbon, Bizkaian.

**IGANDEA 17**

**GIPUZKOAKO TXAPELKETA**
- **Ostadar SKTk Gipuzkoako proba konbinatuetako Gipuzkoako txapelketa antolatuko du. Herriko hainbat atleta izango dira lehian.**
  Goiza. Atsobakar Kirol gunean.

### TXIRRINDULARITZA
**LARUNBATA 16**

**BAZTANDARRA SARIA**
- **Andoaingo Txirrindularitza Eskolako herritarrek kadete mailako Baztandarra III. sarian parte hartuko dute.**
  11.00. Irurita, Nafarroan.

ARETO FUTBOLA

# Eguzki AFko infantilen arteko finalerdikoa penaltietan irabazi du Andatza tabernak

## Herriko ordezkariak Lauburu KE Ibarra A taldearen aurka jokatuko du finala

**Txintxarri**
Infantil mailako Gipuzkoako txapelketak jokatu ziren hilaren 9an. Batean, Eguzki AFko Andatza taberna eta Patricio taberna taldeak izan ziren aurrez aurre eta bestean, Lauburu KE Ibarrako A eta B ekipoak.

Maialen Chourraut kiroldegian Eguzki AFko taldeen arteko partida zirraragarria jokatu zen.

Borroka handia izan zen kantxan. Lehen minutuetan, Andatza tabernak aurrea hartu zuen markagailuan. Baina Patricio tabernako kideek ez zuten amore emango eta banako berdinketa eskuratu zuten.

Bi taldeek garaipenaren golaren bila aritu ziren, baina araututako denbora amaitu ostean, penaltietan erabaki zen finalerako txartela.

Lehen bi penaltietan huts egin zuten Andatza zein Patricio tabernetako kideek. Hurrengo bietan, ordea, atezainak gainditu zituzten eta laugarren txandan, Andatza tabernako jokalariak ez zuen huts egin; Patricio tabernakoak, aldiz, ezin izan zuen baloia sarera bidali.

Era honetara, Eguzki Andatza tabernak Gipuzkoako txapelketako finala jokatuko du Ibarrako ordezkarien arteko derbian garaile izan zen A taldearen aurka. Hitzordua Bidebietako kiroldegian izango da hilaren 16an, 11:45ean.


Derbiko eraso bat. TXINTXARRI

**OHOREZKO ERREGIONAL MAILA**
- Eguzki Arkupe Rehabilit. 6 - 10 Bilkoin Basabe

**ERREGIONAL I. MAILA**
- Sanpedrotarrak 3- 6 Eguzki ISU Leihoak

**GAZTEEN MAILA**
- Eguzki Lekuona Taberna 4 - 3 Lauburu Ibarra

**KADETE MAILA**
- Eguzki Escalerillas Taberna 3 - 6 Mondrate CD

**KADETE EUSKAL KOPA**
- Kukuyaga Etxeberri 2 - 3 Eguzki Escalerillas Taberna

### Bi aldeak
Horrez gain, Eguzkiko gainerako taldeek ligako zein Euskal Kopako hitzorduei egin zieten aurre eta denetarik emaitzak izan dira. Ikus koadroa.

Kadeteen kasuan, batean kale eta bestean bale egin zuten. Ligan Mondrateren aurka 3-6 galdu zuen arren, sailkapeneko bigarren postuan da eta matematikoki azken faserako sailkatua dago taldea. Euskal Kopako lehiaketan, berriz, Kukuyaga Etxebarri 2-3 garaitu zuten eta sailkapeneko buru mantentzen da.

### Madrilen lehian
Bestalde, Eguzki AFko kide Peru Azkarate eta Noel Benitez gazteak Madrilen ari dira lehian Euskadiko Selekzioarekin 12 urtez azpiko Erkidegoen arteko txapelketan. Gaztela-Mantxaren –3-4, irabazi– eta Galiziaren –0-4, galdu– aurka jokatu dituzten neurketetan txanponaren bi aldeak bizi izan dituzte. Hilaren 15ean, Katalunia izango dute aurrez aurre.

GIMNASTIKA ERRITMOKOA

# LOKEko Aiala Jimenez podiumean izan da Gipuzkoako txapelketan

**Txintxarri**
Lasarte-Oria Kirol Elkarteko (LOKE) gimnastek hitzordu berria izan zuten hilaren 9an, Bergaran, Infantil mailako Eskolarteko Gipuzkoako txapelketa. Herriko elkarteak bi talde eta hiru banakako izan zituen tapizean lehian eta horietatik, Aiala Jimenez podiumera igo zen hiru alditan.

Soka eta uztaiarekin egin zuen lan herritarrak eta hirugarren eta bigarren postuetan sailkatu zen, hurrenez hurren. Sailkapen orokorrean bigarren izan zen.

Dominez gain, Jimenezek Euskadiko Eskolarteko txapelketarako txartela ere eskuratu zuen; hitzordua hilaren 23an izango da Eskoriatzan.

Oihane Portuburu eta Laia Suberbiola bikoteak ere parte hartu zuen. Portuburuk bosgarren postuan amaitu zuen sokako lehian eta Suberbiolak, seigarrena uztailarekin lanean.

Taldeei dagokionez, LOKE A eta C taldea aritu ziren lehian uztaiarekin. Urduritasunarekin eta tresnarekin hainbat arazo izan zituzten arren, A taldeko ordezkariek bosgarren postua eskuratu zuten; Cko kideak hamabigarren izan ziren.

Emaitzak alde batera utzita, LOKEko arduradunak pozarren daude gazteek ikasturtean zehar izandako garapena eta jarrerarengatik: "Aurten kode aldaketa izan dugu. Ikasturtean zehar, gimnastek gorputzaren zein tresnen erabileran izan duten hobekuntza eta garapena ikusi dugu eta lan hori azpimarratzekoa da".


Jimenez (ezkerreko lehena), kadete A taldearekin. LOKE GIMNASTIKA



Xabat Martin, podiumeko hirugarren mailan. MA MARTIN

TXIRRINDULARITZA

# Xabat Martin herritarra hirugarren izan da Gipuzkoako txapelketan

**Txintxarri**
Zumaiako Saria lehiatu zen hilaren 9an. Guztira kadete mailako 160 txirrindulari batu ziren eta ohiko sariaz gain, errepideko Gipuzkoako txapelketa zuten jokoan gaztetxoek. Andoaingo Txirrindulari eskolako kideak ere bertan izan ziren eta Xabat Martin Mariezkurrena herritarrak podiumera igotzea lortu zuen; hirugarren izan zen.

Kirolariek hiru bira eman behar zizkioten ibilbide berari eta azkeneko batean Iraetako igoera barrutik egin zuten, Arroagoiko bidegurutzera arte.

Martin pelotoiaren aurrean kokatu zen. Bigarren itzulian mendatearen igoeran mozketa bat egin zen eta herritarra harrapatu zuen. Baina lasterketaburu jarritako taldetxoaren bila atera zen Andoaingo Txirrindulari eskolako kidea.

Azken zatian, ordea, Dimarq-Ipar Maquina taldeko Daniel Diazek eta Besa Geminis taldeko Xabier Berruetak aurre hartu zuten eta Martin atzeko taldean mantendu zen. Azken metroetan, esprintean 3. postua lortu zuen herritarrak.

Martinez gain, talde kide Dario Gomez Blanco herritarra ere izan zen lehian. Pelotoian ongi kokatua zihoan arren, bigarren itzulian mendateko igoeran erorikoa izan zuen. Atzean geratu eta denbora asko galdu zuenez, lehiatik kanpo atera zuten epaileek.

FUTBOLA

# Astiazaranek, gol garrantzitsua


RS ZUBIETA

Sansek Hypermotion Ligan mantentzeko pauso garrantzitsua eman zuen, hilaren 11n, Huesca 1-2 garaitu ostean. Partida borrokatua izan zen. Txuri-urdinak pixkanaka aurkariaren atera hurbiltzen joan ziren eta lehen gola sartu zuen Lander Astiazaran herritarrak. Gazteak Aguirrek erdiraketa egin eta buruz sartu zuen gola. Bigarren zatian, jokalari bat gutxiagorekin geratu zen taldea eta hala ere, 0-2koa jartzea lortu zuen. Azken minutuetan, Huescak errenta murriztu zuen.

SASKIBALOIA

# Junior Errendimendu taldeak ezin izan du Gipuzkoako finalerako sailkatu

## Zast Kuraya taldea hobeto jardun da eta 42-52 gainditu du Ostadar SKT

**Txintxarri**
Ostadar Saskibaloia ataleko taldeek hilaren 10eko jardunaldia jokatuta aurtengo lehiari agur esan diote. Azken neurketa horretan, ordezkari gehienek ez zuten ezer jokoan, baina Junior Errendimendu taldearen kasuan, bere mailako finalerako sailkapena lortzeko borrokatu zen.

Apirilaren 25ean eta hilaren 10ean, joan etorriko finalerdiari egin zion aurre talde urdin-beltzeko ordezkariak Zat Kurayaren aurka. Lasarte-Oriako taldeak aldeko emaitza lortu zuen Zarautzen jokatutako partida estuan, 53-56 eta errenta txiki hori defendatzeko prest zegoen Maialen Chourraut kiroldegian.

Zarauztarrak zentratuago atera ziren kantxara eta erasoan zein defentsan ederki jardunez lehen bi laurdenetan hogei puntuko errenta eskuratu zuten (14-34).


Ligako partidetako bat. TXINTXARRI

Etxekoek ez zuten amore eman eta errenta txikitzeko lan egin zuten gainerako bi zatietan. Partzialak aldeko izatea lortu bazuten (13-6 eta 15-12) ere, ez zen nahiko izan emaitzari itzulia emateko eta Ostadar finaletik kanpo geratu zen.

**SENIOR II. MAILA, A-3**
- Ostadar SKT 41 - 51 Luberri Natxo Aizpurua

**SENIOR III. MAILA, A-3**
- Zarautz Zast 68 - 43 Ostadar SKT

**EUSKAL LIGA, K. MAILA, A-2**
- Salesianos 67 - 47 Ostadar SKT

**K. PARTAIDETZA, A-1, 5-6 P.**
- Ostadar SKT 45 - 41 Aldapeta Maria Berdea

**K. PARTAIDETZA, A-5**
- Ostadar Beltza 49 - 32 Arri BKL Larraitz

**K. PARTAIDETZA, A-5**
- Bera Bera Manteo 43 - 38 Ostadar Urdina

Gainerako taldeek denetariko emaitzak izan zituzten goiko taulan ikus daitekeen modura.

ERRUGBIA

# Racamondek Ohorezko B Mailarako igoera jokatuko du Gaztedirekin

**Txintxarri**
Euskal Ligako finalaren zain Gasteizeko Gaztedik Ohorezko B Mailako igoerako finala jokatuko du, hilaren 17an, Bartzelonan (Katalunia). Aizpea Racamonde herritarra kide duen taldeak CAU Rugby Valencia eta Jaen Rugby Club taldeak izan ditu aurrez aurre azken bi asteetan eta biak garaitu ditu. Finalean Poble Nou izango du aurkari Gasteizko ekipoak.

Hilaren 10ean, etxean Gamarrako zelaian (Gasteiz) lortu zuten finalerako txartela Racamonde eta bere kideek. Jaen Rugby Club izan zuten aurrez aurre, igoera eskuratu ahal zuen faboritoetako bat. Neurketa borrokatua izan zen, baina gasteiztarrak erasoan ongi moldatu ziren eta 12-0 irabazi zuten.

**Finalaren bila**
Alex Saleta, aldiz, Ohorezko Mailako finalaren bidean dugu. Herritarra kide den VRAC Quesos Entrepinaren taldeak finalerdia jokatuko du Societe Generale Liceo Frances taldearen aurka. Final laurdenean, Valladolideko ordezkarien derbia izan zen eta VRACek Inexo el Salvador 24-11 gainditu zuen.

Ohorezko B Mailan, aldiz, Gipuzkoa Sortzen taldeak Universitario de Bilbaoren aurka neurtu zituen indarrak. Lehia estua izan zen eta zigor kolpe bati esker, 20-22 gailendu ziren bizkaitarrak.


Aizpea Racamonde, lehian. GAZTEDI RT

JUDOA

# LOKEko kideak, Unibertsitate mailako Espainiako txapelketan


Santos eta Aristegi. LOKE JUDO

Unibertsitate mailako Espainiako txapelketa lehiatu zen hilaren 9an, Granadan (Andaluzia) eta Lasarte-Oria Kirol Elkarteko (LOKE) bi ordezkari, Aitor Santos eta Suhar Aristegi izan ziren lehian Deustoko Unibertsitatearen eta EHUren izenean, hurrenez hurren.

Biek 90 kilo azpiko kategorian egin zuten borroka. Tatamian ederki moldatu ziren, baina Aristegik bakarrik lortu zuen lehen postuetan sailkatzea; zazpigarren postua eskuratu zuen. Horrez gain, EHUk eraman zuen unibertsitate onenaren saria.


Aitor Manso bere Talex M3an, Gorlako igoeran lehian. LEIRE RUESGA

AUTOMOBILISMOA

# Aitor Manso podiumean bigarren izan da lehia estuko Gorlako igoeran

**Txintxarri**
Bergaran lehiatu zen Euskadiko Mendi igoeretako azken proba, hilaren 9an, Gorlako igoera. Aitor Manso herritarrak bigarrenez parte hartu zuen lasterketan eta bi podiumetara igo zen; sailkapen orokorrean bigarren eta 9. kategoriako garaile izan zen.

Herriko gidariak azaldu digunez, entrenamendua eta bi saio kronometratu bakarrik zituztenez, "hasietatik indartsu" ateratzen saiatu zen eta entrenamenduan zein lehen igoera ongi moldatu zen; azken horretan markarik onena egin zuen, 02.38,610

Bigarren saiakeran, aldiz, segundo-hamarrenengatik ihes egin zion garaipenak. Aitor Zabaletak bere Lola BMW T-298 ibilgailuarekin erdietsi zuen lehen postua (02.37,740). Hala ere, 9. kategoriako lehen postua eraman zuen (2.37,925).

Mansok lehiaketako zapore gazi-gozoa duela jakitera eman digu: "Pena da garaipena lortu ez izana, erritmo ona genuelako. Beste kategoria eta potentzia handiagoko ibilgailuak irabazi zuen. Baina pozarren nago amaierara arte borrokatu genuelako".

Orain hilabeteko atsedena izango du gidariak eta Euskadiko zein Madrilgo hurrengo probak prestatzen jarraituko du.

TRIATLOIA

# Sukuntza, Hondarribiko podiumean


G. SUKUNZA

Triatloi denboraldia hasi da eta herriko ordezkariak lehian hasi dira, baita podiumera igo ere. Hondarribiko Triatloia jokatu zen, hilaren 9an. Sprint modalitateko proba horretan, 750 m. igerian, 20 km. txirringan eta 5 km. korrika, Zumeatarra taldeko Aimar Sukuntza izan zen borrokan. Bosgarren postuan iritsi zen helmugara, 01.04.43 denboran eginez eta 23 urtez azpiko kategoriako garaile izan zen.

Lasarte - Oria 2026

# udaberriko festa

## Maiatzaren 15etik 23ra

### Maiatzak 15

**CAFÉ -BAR BUENETXEA**
Pablo Mutiozabal kalea, 2
18:30 - 21:30
"Tardeo Metal" Dj arekin

### Maiatzak 16

**ARKUPE TABERNA**
Largonea kalea, 1
13:00 - 15:00
Paellada
14:00 - 14:30
Zumba saioa
19:00 - 21:30
Kontzertua
"La Fábrica de las boinas" eta "Manzzony flamenco"

**LA GESELINA KAFETEGIA**
Hipodromo etorbidea,15
09:00 - 13:30
Udaberriko gozokiak

### Maiatzak 21, 22 eta 23

Eskaintza bereziak establezimendu hauetan

**IMAGINE JANTZI DENDA** Geltoki kalea, 19
**NAMIE SUSHI** Geltoki kalea, 15
**AMALI JOLASDENDA** Geltoki kalea, 6
**LILURA LIBURUDENDA** Hipodromo etorbidea, 8
**MABEL MODA** Hipodromo etorbidea, 1
**BIDEO LAGUNAK** Donostia etorbidea, 2
**ELECTRICIDAD ARREGUI** Kale Nagusia, 39
**URRUZOLA MERTZERIA** Kale Nagusia, 42
**MERCERÍA OLMI** Kale Nagusia, 46

### Maiatzak 23 Larunbata

18:00 - 20:00 OKENDO PLAZA
"UDABERRIKO ATERPEA PARRILLADA"
Txanpinoi parrillada eta barrikotea musikarekin girotuta




### Maiatzak 22

**ORMAZABAL LORADENDA**
Kale Nagusia, 33
17:00 - 19:00
"Landatu zure landarea" Tailerra

**LILURA LIBURUDENDA**
Hipodromo etorbidea, 8
17:00 - 19:00
Haurrentzako tailerra

### Maiatzak 23

**AMALI JOLASDENDA**
Geltoki kalea, 6
11:00 - 13:00
"Udaberri, lore berri" Tailerra

**ANDATZA TABERNA**
Andatza Plaza, 5
12:00 - 15:00
Bermuteoa musika akustikoarekin girotua

**CAFÉ-BAR BUENETXEA**
Pablo Mutiozabal kalea, 2
18:30 - 21.30
Kontzertua "The Gu" eta "Só-zerdottes" taldeekin

**ORIA-TXIKI TABERNA**
Zirkuito ibilbidea, 15
13:00 - 15:00 Parrillada
19:00 - 21:00 Kontzertua "Arka" taldearekin

### Maiatzak 23 Larunbata

11:00 - 14:00 / 17:00 - 20:00
**TXU-TXU**
Trena Lasarte-Oriako kaleetan zehar
(Okendo Plazan geldialdia eginez)

aterpea

Euskadi, auzolana, bien común
EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
TURISMO, MERKATARITZA ETA KONTSUMO SAILA
DEPARTAMENTO DE TURISMO, COMERCIO Y CONSUMO

LASARTE-ORIA
TRATU ON BAT
UN BUEN TRATO

LASARTE-ORIA
UDALA - AYUNTAMIENTO

## ZORION AGURRAK



**Esti**
Zorionak eta urte berri on! Zure familia eta lagunen partetik.
Ondo pasa!

## Urte askotarako!

**Zorion-agurra jartzeko, hiru bide:**

- txintxarri.eus-en erabiltzailea sortu eta *txintxarri.eus/zorionagurrak* helbidean sartu.
- Mezua bidali *txintxarri@ttakun.eus* helbidera, eta idatzi izen-abizenak, herria, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.
- Zatoz Ttakunera edo bidali WhatsApp-ez 688 68 35 10 telefonora.

**Osteguneko 16:00ak arte jasoko ditugu**

## SUDOKUA

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | 8 | 7 | 4 | | | | |
| | 3 | | | 9 | | | | 7 |
| 2 | | | 3 | | | | | |
| | | | | 5 | | 8 | 4 | |
| | | | | | 1 | 9 | | 3 |
| | | | 8 | 3 | 9 | 7 | | |
| 5 | 2 | 7 | | | 4 | 3 | | |
| | | | | | 3 | 1 | | 4 |
| 3 | | 4 | 5 | 8 | | | | 9 |

**Sudoku-online.org**

## TELEFONOAK

### UDALAREN TELEFONOAK

- ERREGISTROA: 943-37 16 29
- EUSKARAKO ZERBITZUA: 943-37 61 84
- KIROLDEGIA: 943-37 61 82
- MANUEL LEKUONA
- KULTUR ETXEA: 943-37 61 81
- GIZARTE ZERBITZUAK: 943-37 61 79
- KIUB: 943-36 16 05
- UDAL EUSKALTEGIA: 943-36 16 21
- MUNTTERI AEK: 607 62 52 33

### LARRIALDI TELEFONOAK

- OSASUN ZENTROA: 943-00 79 60
- DYA: 943-46 46 22
- GURUTZE GORRIA: 943-36 39 53
- UDALTZAINAK: 943-36 24 42
- ERTZAINTZA: 943-53 88 40
- SOS DEIAK: 112

## GUARDIAKO FARMAZIAK

**LASARTE-ORIA** EGUNEZ

| | |
|---|---|
| OSTIRALA, 15 | KNIESE |
| LARUNBATA, 16 | GANDARIAS-URIBE |
| IGANDEA, 17 | GANDARIAS-URIBE |
| ASTELEHENA, 18 | KNIESE |
| ASTEARTEA, 19 | KNIESE |
| ASTEAZKENA, 20 | KNIESE |
| OSTEGUNA, 21 | DE MIGUEL |

**Eguneko Farmaziak: 09:00-22:00**
DE ORUE: Jaizkibel plaza 2/ 943-36 26 52
ACHA-ORBEA: Hipodromo et. 6/ 943-36 35 49
DE MIGUEL: Kale Nagusia 32/ 943-37 11 51
LASA: Kale Nagusia 42 atzea/ 943-36 17 74
GIL: Kale Nagusia 24/ 943-36 07 08
KNIESE: Kale Nagusia 71/ 943-36 65 67
GANDARIAS-URIBE: I.de Loyola 9/ 943-01 95 21

**GAUEKO FARMAZIA** EGUNERO
***22:00etatik 09:00etara***
CASTILLA-LARBURU farmazia
Urbieta kalea 7, / 94-55 29 41

## IRAGARKI SAILKATUAK

### Iragarkia jartzeko

**943-37 14 48**
***publizitatea@ttakun.eus***
***www.txintxarri.eus/sailkatuak***

- Osteguneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak iragarriko ditugu.
- Hortik aurrera ez da onartuko aldaketarik, ez eta iragarkia bertan behera uzterik ere.
- TXINTXARRI-k ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

## GUTUNAK

### Eskutitzak argitaratzeko

Eskutitzak argitaratu nahi dituzten herritarrek hiru modu dituzte testua bidaltzeko: bulegora etortzea (Geltoki kalea, 4, behea), *txintxarri@ttakun.eus* helbide elektronikora edo WhatsApp bidez, 688 68 35 10 telefonora bidaltzea. Idatzia orri hauetan publikatua izan dadin, izen-abizenak zeintzuk diren zehaztu beharko dute.




txintxarri WWW.TXINTXARRI.EUS

**Argitaratzailea**
Ttakun Kultur Elkartea
Geltoki kalea 4 (behea)
20160 Lasarte-Oria
G-20407557

**Administraria**
Nerea Garziarena.

**Erredakzioa**
Nerea Eizagirre Etxeberria, Iñigo Gonzalez Sarobe, Maddi Noriega Zaldua eta Lierni Apaolaza Urdanpileta.

Publizitatea
Irati Zatarain.

**Laguntzaileak**
Gorka Lasa, Lierni Rekondo, Gorka Alvarez, Aizpea Amas, Maitane Rebe, Jexux Artetxe eta Oihane Puertas.

**Banatzaileak**
Nora Navarro, Aimar Hernandez, Gari Iraola, Axier Iraola, Eneko Sanchez eta Udane Guisado.

**Informatika zerbitzuak**
IZT Informatika.

**Publizitatea**
Tel.: 943-37 14 48 (106)
WhatsApp: 646 82 44 66
*publizitatea@ttakun.eus*

**Egoitza nagusia**
Geltoki kalea 4
Tel.: 943-37 14 48 (104)
WhatsApp: 688 68 35 10
*txintxarri@ttakun.eus*

**Inprimategia**
Zeroa Multimedia, S.A.
Lege Gordailua: SS-513/93
ISSN: 1134-0053
Tirada: 8.300 ale

TXINTXARRI-k ez du bere gain hartzen kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

BABESLEA
LASARTE-ORIA UDALA

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENA:
Gipuzkoako Foru Aldundia

## AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKEN EGUERDIRAKO.
**943-37 14 48 | 688 86 83 10** | ***txintxarri@ttakun.eus***

### OSTIRALA 15

**LASARTE-ORIA**

- **Ospakizuna** Aterpea merkatarien elkarteak antolatutako Udaberriko Festaren barruan, Tardeo Metal DJak saioa egingo du. Buenetxea taberna-kafetegia, 18:30etik 21:30era arte.

### LARUNBATA 16

**LASARTE-ORIA**

- **Ospakizuna** Aterpea merkatarien elkarteak antolatutako Udaberriko Festaren barruan jarduera hauek programatu dituzte:
  **09:00etatik aurrera,** udaberriko gozokiak egiteko tailerra La Geselina kafetegian.
  **13:00etatik 15:00etara,** paella jana Arkupe tabernan.
  **14:00etik 14:30era,** zunba saioa Arkupen.
  **19:00etatik aurrera,** La fabrica de las boinas eta Manzzony flamenco taldeen kontzertuak Arkupen.
- **Literatura** 0 eta 3 urte arteko haurrei eta euren familiei zuzendutako Liburu Baby Kluba egitasmoaren saioa egingo dute euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez. Txikitatik irakurzaletasuna sustatzea da ekimenaren helburu nagusia. Udal Liburutegia, 11:00etan.
- **Topaketa** Herritar guztiei irekitako entsegu berezia antolatu du Euskal Herriko Casteller Taldeak. Okendo plaza, 16:30ean.
- **Musika** Talde ugarik joko dute Andatza Festibalean: Belen Natali, Eira, Morodo, Natah, Green Valley... Andatza plaza, 17:30etik aurrera.
- **Antzerkia** Txalo Teatroa konpainiak *Trajea* antzezlanaren emanaldia egingo du. Sarrerek 6,10 euro balio dute. Manuel Lekuona Kultur Etxea, 19:30ean.

### IGANDEA 17

**HERNANI**

- **Manifestazioa** LGTBIQA+fobiaren aurkako egunean Burutzaldeko Transmaribibolloek eskualdeko manifestazioa egingo dute Hernaniko Plaza Berrin, 12:00etatik aurrera. Ekintza horren ostean marianitada musikatua egingo dute Tiloetan, Anuk eta Elene musikariek girotuta. Hernaniko Plaza Berri, 12:00etatik aurrera.

**LASARTE-ORIA**

- **Zinema** Haurrei zuzendutako saioan *Extinción* filma emango dute. Sarrerek 4,10 euro balio dute. Manuel Lekuona Kultur Etxea, 17:00etan.
- **Zinema** Helduei zuzendutako saioan *Sinners* filma emango dute. Sarrerek 6,10 euro balio dute. Manuel Lekuona Kultur Etxea, 19:30ean.

### ASTEARTEA 19

**LASARTE-ORIA**

- **Saioa** LGTBIQ+ egitarauaren barruan, *Zaindu maite duzun oro* jarduera egingo dute 4 eta 6 urte arteko haurrentzat eta euren familientzat. Manuel Lekuona Kultur Etxea, 17:30ean.
- **Literatura** Nahia Intxausti idazle lasarteoriatarrak *Zainetatik zilarra* poema liburua ekarriko du literatur txokora, elkarrekin lantzeko. Herritar orori irekitako saioa dela gogorarazi dute antolatzaileek. Manuel Lekuona Kultur Etxea, 18:30ean.

### OSTEGUNA 21

**LASARTE-ORIA**

- **Literatura** LGTBIQ+ egitarauaren barruan, *La rebelión de las hienas* eta *Las hermafroditas del siglo XXI* liburuak aurkeztuko ditu Mer Gomez idazleak. Maider Galardi izango du lagun. Antonio Mercero aretoa, 18:30ean.
- **Literatura** *Narrugorrik* liburuari buruzko solasaldia egingo dute Ixiar Rozas egileak eta Aintzane Usandizaga idazleak. Jalgi kafe antzokia, 18:30ean.

### OSTIRALA 22

**LASARTE-ORIA**

- **Aurkezpena** Kriseilu Gazte Langileen Asanbladako kideek Karabista fanzinea aurkeztuko dute. Kontzertu akustikoa eta pintxada (azken hau, siglo 20 tabernan) ere egingo dituzte. Jalgi kafe antzokia, 18:00etatik aurrera.

### LARUNBATA 23

**LASARTE-ORIA**

- **Ospakizuna** II. Txaranga Eguna ospatuko dute herrian barrena:
  **10:30ean,** diana, Hamaika Doinu Txistulari Taldearen eskutik.
  **11:00etan,** txarangarako instrumentuak egiten ikasteko tailerra.
  **12:00etan,** Oaintxe in deu! txarangaren emanaldia.
  **14:00etan,** txarangapotea, Kita del Pare taldeko kideekin. Buenetxea, OKS eta Patricio tabernetan.
  **16:00etan,** Los Espontaneos txarangaren emanaldia.
  **18:00etan,** Goxo txarangaren emanaldia.
  **20:00etan,** Malatxo txarangaren emanaldia.
  **22:00etan,** Arranopola txarangaren emanaldia.
- **Tailerra** Lego tailerra antolatu dute 6 urte baino gehiagoko haurrentzat. Udal Liburutegia, bi txandatan: 10:00etatik 11:00etara eta 11:15etik 12:15era.
- **Literatura** 0 eta 3 urte arteko haurrei eta euren familiei zuzendutako Liburu Baby Kluba egitasmoaren saioa egingo dute euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez. Txikitatik irakurzaletasuna sustatzea da ekimenaren helburu nagusia. Udal Liburutegia, 11:00etan.
- **Musika** XX. Musika Topaketak antolatu dituzte Lasarte-Oriako Udalak eta Danok Kide elkarteak. Horren barruan, *Piano baten inguruan batzen gaituena* emanaldia egingo dute Jakes Txapartegi, Esther Barandiaran eta Iñaki Salvador musikariek. Sarrera doakoa da baina gonbidapenak eskuratu beharko dituzte ikus-entzuleek aretoko leihatilan. Manuel Lekuona Kultur Etxea, 19:30etik aurrera.

### IGANDEA 24

**LASARTE-ORIA**

- **Dantza** Hileroko saioa egingo dute Plaza Dantza egitasmoan parte hartzen ari diren herritarrek. Okendo plaza, 12:00etan.
- **Zinema** Haurrei zuzendutako saioan *Gangster txikia* filma emango dute. Sarrerek 4,10 euro balio dute. Manuel Lekuona Kultur Etxea, 17:00etan.
- **Zinema** Helduei zuzendutako saioan *La Grazia* filma emango dute. Sarrerek 6,10 euro balio dute. Manuel Lekuona Kultur Etxea, 19:30ean.



**Herriko txarangetako eta udaleko ordezkariak, egitaraua aurkezten.** TXINTXARRI

KULTURA

## Sei txarangarekin batera dantzatuko du udalerriak hilaren 23an

**Txintxarri**

Maiatzeko azken-aurreko larunbata hankaz gora jarriko dute II. Txaranga Egunean parte hartuko duten taldeek, goizetik hasi eta iluntzera arte. Lasarte-Oriakoak diren Oaintxe in deu! eta Arranopola txarangek beste lau musikari kuadrilla gonbidatuko dituzte guztien artean giro ederra sortzeko eta musika egiteko modu horri ikusgarritasuna emateko. Udalarekin lankidetzan prestatu dute hilaren 23rako egitaraua.

Hauek dira herriko bi taldeekin batera ariko diren txarangak: Kita del Pare (Astigarraga), Los Espontaneos (Rubielos de Mora, Teruel, Aragoi); Goxo (Iruñea); eta Malatxo (Tafalla, Nafarroa). emanaldiez gain jarduera gehiago antolatu dituzte hilaren 23rako. Lasarte-Oriako Hamaika Doinu txistularien taldeak iratzarriko ditu herritarrak, diana eginda, 10:30ean. Ordu erdi geroago iaz arrakasta izan zuen tailerra aurrera eramango dute, haurrek txarangarako instrumentuak egiten ikas dezaten. Iazko edizioarekin alderatuta, bazkaria ez dute egingo eta horren ordez herriko hiru tabernatan (Buenetxea, OKS eta Patricio) txarangapotea gauzatuko dute. Udaleko Jaiak departamentuko zinegotzi Txus Alonsok esan duenez, 8.500 eurorekin lagunduko dute ekimena.

KULTURA

## Musikatik eta euskaratik, bidaia



TXINTXARRI

*Gora Musika!* ikuskizunaren emanaldia egin zuten hilaren 9an kultur etxean. Urte luzez musikari eta euskarari esker hainbat familia alaitu dituzte Oianek eta Urkok. Ibilbide arrakastatsu horren ostean, haurrentzako jarduera prestatu dute Korrontzi erromeria bandarekin, Bixente Martinezekin eta dantzari zein erraldoiekin batera. Artisten artean, Araitz Ramos dantzari lasarteoriatarra oholtzaratu zen.

LANBIDE HEZIKETA
AURREMATRIKULA
zubieta
LANBIDE ESKOLA
MAIATZAREN 4tik
22ra ARTE
PRESENTZIALKI ZENTRUAN
Hartu hitzordua
**943 364 600** telefonoan.
Astelehenetik ostegunera 8:30-17:00
Ostiraletan 8:30-14:30
HARTU TXANDA
ONLINE
www.ikasgunea.euskadi .eus

AZKEN LEKUAK

UDALEKUAK
LH5-LH6
AZKARATE
UZTAILAK 2-11
363 € / 327 €
AZKARATE+UDAKO TXOKOAK
OSOA
9:00ETATIK 492€ / 468€
10:00ETATIK 460€ / 437€
+ JANGELA AUKERA EGONGO DA. PREZIOAK AURRERAGO.
PREZIOAK: BELTZEZ EZ BAZKIDE / GORRIZ BAZKIDEAK
Tta kun Kultur Elkartea
943-37 14 48
665 49 75 02
GELTOKI KALEA, 4
LASARTE-ORIA
ktglasarteoria@ttakun.eus
Gipuzkoako Foru Aldundia
EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

gremioen gida 2026
Eskura eta herrian.
Zerbitzurik onenak, zuretzat!

Elektrizitatea
ELECTRICIDAD ARREGUI
• Material elektrikoa
• Argiak
• Etxetresna elektrikoak
• TB/HI-FI
• Instalazio elektrikoak
Kale Nagusia 39, LASARTE-ORIA
Tel: 943-36 10 80 - Tel/Faxa: 943-37 25 21
600 85 75 86 www.electricidadarregui.com
tienda.electricidadarregui.com

Antenak
hartele
Antenak
Telebista
Interfonoak
Instalazioak eta mantentzeak
Bideozaintzak
LASARTE-ORIARA ZERBITZUA ESKAINTZEN DUGU!
943-28 77 42 | 629 12 13 55
Zabaleta, 44 Donostia
www.hartele.eus

Igeltseritza
Uraitz, s.l.
Igeltseritza Orokorra
• BARRUKO BERRIKUNTZAK
• TEILATU ETA FATXADAK ISOLATZAILEAREKIN VIPEQ F08 ETA S.A.T.E. SISTEMA
• BAINUONTZIAREN ORDEZKAPENA EGUN BATEAN
• GREMIOEN KOORDINAKETA
Tel. 693 05 93 92 - 943-56 66 40
uraitz@uraitz.com - www.uraitz.com
Hipodromo etorbidea, 10 LASARTE-ORIA

Kristaldegia
ANORGA TXIKI S.L
KRISTALDEGIA
• Komertzial instalazioak
• Beira bikoitza
• Segurtasun beirak
• Dutxa-itxiturak eta irristailuak
• Ispiluak
• Barandak
• Kristal mota guztiak...
Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORIA
943 37 17 33 • 610 45 93 45
www.cristaleriaanorgatxiki.com

34. URTEURRENA
ISU
PVC eta ALUMINIOZKO LEIHOAK
943-36 64 95
ventanas_isu@hotmail.com
Kale Nagusia, 46 behea.
LASARTE-ORIA
Tailerra: Pol. Ugaldea 21, 6.lokala
USURBIL

Barne diseinua
SUGATE
SUKALDEAK ETA BARNE ERABERRITZEAK
• GREMIOEN KOORDINAZIOA
• ORDENADORE BIDEZKO DISEINUA
• AURREKONTUAK KONPROMISORIK GABE
• HORMA-ARMAIRUAK
• MARKA GUZTIETAKO ETXETRESNA ELEKTRIKOAK
Pintore kalea 5
Lasarte-Oria
Tel: 943-361 471
www.sugatecocinas.com